

# ZAR

BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
16n. ZENBAKIA  
GABONILLA  
— 1978 —



---

*Olako eginbearrak artzera,  
oitu zaitte.  
Urte bi igaro baiño len,  
lau laguntza barri.*

Gauzatarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua goa eskintzea aitutzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo doguzan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aidatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.


Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO**  
**AURREZKI KUTXA**

*Geroa, bertan daukagu.*





# BAKEA!

# BAKEA!

Gabon-aurrean gagoz eta jai onetan sendia ta bakea gogoratzen jakuz euskaldunai.  
 Izen ederra da bakearena, baiña gizaki arroen biotzetatik urrindu da berba  
 oder orrek esan gura dauan gauza eder ori.  
 Eta ez gitxien aspaldiko urteetan gure erritik.  
 Izen erabilia bakearena, baiña ez eskubide lortua, ez biotzetan, ez errietan.

\* \*

Guda-giroak inguratu gaitu aspaldian.  
 Len zapalkuntza samiña, orain guda-bildurra ta ikarea.  
 Aize pozoituak uriak beteten dituan antzera, inguratzen gaitu guda-giroak.

\* \*

Gogorkeri-bidea sortu jaku Euskalerrian.  
 Gogorkeria laterriko agitari zapaltzailleakandik.  
 Gogorkeria erritar zapalduen artetik, eta gogorkariak eriotzak, odola, erri-nekeak eta  
 bildurkeria indartu ditu.  
 Eta ortik zenbat guzur eta naste.

\* \* \*

Zapaltzaillea ta zapaldua aurrean ikusten doguz eta jokabide ori bideratzen ez dan artean,  
 nondik etorri leikegu bakea! Gogorkeriaren bidez doian edur -bola ori nork geratuko dau?  
 Zapalkuntzea kentzen ez bada, gogorkeriak jarraituko dau, eta gogorkeriak zapalkutzeari  
 bere erantzuna emongo dautso.  
 Eta non dago. urtenbidea?

\* \* \*

Gizona ez da aintzat artzen.  
 Gizonaren biziak balia galdu dau, diruak berak baiño be bizkorrigo galdu be.  
 Gizonak ilteak ez gaitu gaur arritzen, gitxiago areriotzat artzen badoguz.  
 Eta non dago gizartearen oiñarria? Nondik bakearen argitasun-izpiak?

\* \* \*

Berbearen indarrean geunkan euskaldunak itxaropena.  
 Baiña ezpatak goian dagozan artean, ez da berba egiteko aldi egokia.  
 Eta ezpatak goian dagoz, piztolak gizonai begira dagoz, metralletak beterik agiri dira.  
 Non dago berbearen indarra? Non bakearen itxaropena?

\* \*

Lenago be izan genduan gudea, gerrea.  
 Eta ez zan bakerik egin, gerrea amaitzeko ez zan berbea nagusi izan. Indarrak ezarri  
 eban bere legea.  
 Eta orain zer?  
 Nondik sortuko da alkar-izketea? Ez al da asarrea nagusi?

\* \* \*

Erri bake-zalea izan gara. Ori gogoratzen dauskue Gabon-jaiak.  
 Berbako gizonen izena emon dausku munduak. Inõra ez giñan joan gudari.  
 Baiña gaur munduak beste izen bat emoten dausku, ez gara lengoak munduan.

\* \*

Bakea! Bakea!  
 Lurrean eta gizon guztien artean, Euskalerrian eta munduan, edonon.  
 Zuzentasuna gizonentzat ete zuzentasuna errientzat, bakea guztientzat.  
 Ez odolik, ez eriotzarik, bai biotz ona ta alkar-izketea.  
 Bai zuzentasuna ta bakea.

# Ames zoragarria

- **Iru ames:** Ikasketak euskeraz  
Gurasoak arduraz  
Eleizea laguntzaz.
- **Gose danak, ogia ames**
- **Itxaropena:** Berba, idatzi, irakurri  
Ikastolak, gau-eskolak, sendiak.  
Burrugarik ez, norberaren arloan, Euskalkia.

Goiz-alde baten poz-pezirik itxartu nintzan, ames zoragarri batek emondako poztasunaz.

Gau aretako amesak iru atal zituan.

Lenengoa : Euskalerriko ikas-tetxe nagusi ta txiki guztietan, Euzkadi'ko agintarien aginduz, ikasketa guztiak euskeraz egiten zirala.

Bigarrena: Euskalerriko guraso guztiak bein betiko itxartu zirala eta euren etxeetan euskera gure izkuntza maitea beti ta mara-mara egiten zala.

Irugarrena : Gure Eleiza katolikuak elizkizunetan ta irakastean euskera erabiltea aginduta eukala, eta eleiz-gizon guztiak euskera sakondu ta ikasten aleginduten zirala.

Orregaitik izan zan nire loa gozoa ta amesa ez-titsua.

Izan be, iru atal edo age orreitan oiñarritzen da euskerearen etorkizuna.

Gose danak, ogia egiten dauala ames, da esakunea; eta orixe jazo jatan niri be.

Euskerearenganako zaletasuna ta egarria, . aundiak dira nire barruan eta orregaitik nire ames pozgarria.

Baiña lo gozotik itxartutean, nire samiña ta barruko utsunea !

Nire amesa oraindiño ames bat baiño ez da, nire ezpanetako adur gozoa legortu da, au ez-bearra ta benetako samiña euskaldun euskalzale batentzat!

Baiña ez uste izan orregaitik itxaropena galdu dodanik.

Ez naz uste gabeko.

Iñoz baiño euskereaganako zaletasun geiago susmaten dot.

Ugaritu dira ikastolak. Geitu dira nagusientzako gau-eskolak, euskera dakigunok parra-parra alde guztietan jardun ba' dagigu, batez be ume ta nagusi guztiok euskerazko idatziak eguneero zerbait irakurten ba'doguz, elduko da gure berbizkundera, gure ames zoragarriak egi hinrtnkñ dir a

\* \* \*

Ez burrukarik gure artean. Bekotxak ekin begi bere arloan eta orrelan erri-euskalkiak bizi-rik iraungo dabe eta euron birtartez euskerea batua ta ederra izango da, benetako euskerea.

Oraindiño euskerearen sena, mamiña ta biotza euskalkietan dago eta bertatik artu bear dau euskera batuak euskal-bizia ta arimea.

**GALLASTEGI'tar Kauldi'k**

# ALTUBE'REN ERITXIA

## (JARRAIA)

Azkue'rentzat bardi-bardin da ibilli **aal naz** eta **ibilli naiteke** esatea edo **ezin jan dot** eta **ezin jan daiket** asatea. Altube'k, ostera, guztiz bestelako eritxia dau.

«El pueblo no contaminado del habla cervantina nunca llega a confundir ambas categorías de flexiones» diñosku «Observaciones al tratado de Morfología» izeneko bere liburuan (127 eta 128 or.).

Altube jaunaren irakatsien arabera, **etorri aal naz, ezin etorri naz** eta onelango adizkiak Aal Eraren ORAIN-ALDIARI dagokioz. **Etorri naiteke, ezin etorri naiteke** eta onelangoak, barriz, Aal Eraren GERO-ALDIARI. Beraren itzak aita-tzea izango da argigarriena.

«Potencial Presente. Se usa cuando el acto está en ejecución, es decir, cuando la potencialidad está puesta a prueba. Ejemplos: a) **Ezin ibilli naz** (cuando se esta caminando y no se puede continuar). b) **Ezin lorik egin dot** (cuando se esta acostado sin poder conciliar el sueño).

**Potencial Futuro Presente.** Se emplea cuando el acto a que se refiere el nombre verbal debe ser realizado después del momento en que se habla, aunque la potencialidad del sujeto sea considerada como actual en dicho momento. Ejemplos: a) **Eroan daiket**, puedo llevarlo (aunque no estoy llevando). b) **Ezin lorik egin daiket, lan asko daukat-eta, no** puedo dormir, es decir, no puedo ponerme a dormir... c) **Ezin etorri daiteke ordurako, ankako miñaz dago-ta**, no puede venir (no puede ponerse a caminar...). Por eso, las locuciones euskéricas de Futuro Presente pueden revertirse a otras castellanas formadas por flexiones en subjuntivo. Ejemplo: **Ezin ibilli naiteke**, es imposible que pueda andar. **Ezin lorik egin daiket**, es imposible que pueda dormir, etc. En cambio, las potenciales de Presente se expresan con más exactitud por fórmulas castellanas gerundiales. Ejemplo: **Ezin ibilli naz**, estoy no pudiendo andar. **Ezin lorik egin dot**, estoy no pudiendo dormir...» («Observaciones al tratado de Morfología», 127 eta 128 or.) (Altube'ren irakatsiok badatoz «Euskal aditza-bizkaiera» deritxan liburuxkan be, 33 eta 65 or.).

## ESAN-GURA EZBARDIÑA

Esakun edt) adizki bitzuok («ambas categorías de flexiones», Altube'k esango leukenez) ez dabe, ez, adierazkizun bera, guztiz bestelakoa baiño.

«Belarri» apur bat izatea naikoa dozu bestelakotasun onetaz jabetu zaitezán.

Azkue aundia zelan ez zan konturatzen ezin dot ulertu.

Altube'k arrazoia ebalá bistan dá.

Jakintsu onek zeatz-meatz agertzen dausku esaldi batzuan eta bestetzuon esan-naia.

Ezin, beraz, zein bata, zein bestea norberaren gogara erabilli.

Zer adierazo nai dan eta orduantxe baiño.

Gaurko idazleak, baiña —gorengotzat daukaguzanak be uts egiten dabela— ez dabez egokiro erabilten Aal Erari dagokiozan adizkiok.

Eta arazo onetan gaur egunez sarri oztopo egin oi dogula ikus dagizun, iraiN onetako «Aran-zazu» aldizkaria ekarriko dautsut argibidetzat.

12-garren orrialdean aonelan diño: «...eta itsu itsuan bide beretik segitzearekin **ezin dugu** asko aurreratu». Euskaldun-euskaldun batek **ezin de-zakegu** esango leuke.

13-garren orrialdean, barriz, auxe: «Kristau ikuspuntutik **ezin ditugu** onartu... », **ezin ditza-kegu** esan bearrean.

(Jarraituko dau).

**PUXANA'k**

## EZIKETEA

# TXIKITATIK EZI

Joan daan illeko idazlanari jarraituz, umea txikitatik ezi bearra dagola esango dogu. Bai, txikitatik, sortzen danetik bertatik asita.

Baiña pentsaera oni sarritan ez jako jaramon txikienik be egiten.

Alan izan eta be, amaren sabalean dagoena ezitzea eziñekoa edo, iruditzen jaku askotan.

Oialeko edo oiñez ikasi barria daan bat ikusten dogunean be ber-bera gertatzen jaku, eta sarritan ez dautsogu bear dauan jaramonik egiten.

Bai «bear dauan jaramona» diñot barriri be, bestetarikoa ugari izaten dabe eta.

Ikustea baiño ez dago zelan janzten diran, senbat apaingarri daben soiñean, seaskan, logelan, eta abar.

Agiri baten, ezin obeto zainduta, ikusten ditugu danak be.

Baiña... eta barren-barrenean apain erakusteko egiten ditugun aalegiñak izaten ete ditugu eziketa arloan?

Penagarria cia, baiña sarritan umearen izateari berari baiño bere itxurari geiago begiratzen dautsogu.

\* \* \*

Zer egin dagikegu, ba, oialeko umeak obeto ezitzeko, esate baterako?

Aztertu dagiguzan aundi-aundika baiño ez ba cia be, jokabide batzuk.

Asteko, auxe esango neuke: umeak argiago edo laburrago izatea sarritan geure ezkuetan dagola.

Ondo janaritzea bakarrik ez cia naiko. Ba cia egin bearreko besterik.

Ikusi:

Umeari itz egiten irekasten jako; ezin dau berak bakarrik ikasi.

Baiña irekaskintza ori ezin cia amar edo amabi illabetez asi.

Irekaskintza ori jaio eta aste gitxi barru asi bearrekoa cia. Aldi onetan, jaio barri dala, umearen izkuntza zemaiekazkoa da.

Itz egiten ez ba daki be, ez cia gauzak ulertu barik geratzen.

Antxe sentitzen dau amaren maitasuna edo maitasun-eza, lasaitasuna edo urduritasuna, inguruko gizarteagandiko abegi ona edo ez ain ona, eta abar, eta abar.

Onela, ikumenez, eldutasun bat lortzen ari cia.

Eldutasun-ezaren erakusgarri dira sarritan, ume atzeratu asko.

\* \*

Beraz, bizitzako leenengo illeetan ikumenak bere garrantzia dauka, eta aundia. Bere ikasbidea ikumena da.

Baiña zer ikutu dagike ume ain txikiak?

Ba, norberak emon dagiketsona.

Eta onetan kontuan artu bearko dogu ezbar-dintasun agiria daben gauzak emoteko. Onela egun bateko eskuarterakoa gauza bigun bat (globo bat) izan daiteke; beste batekoa, ostera, gogorragoa daan beste zerbait (pelota bat) ; beste baten jostaillu leun bat edo beste, edo baita gauza latzen bat (soka zati bat, esaterako). Beste egun baten, zergaitik ez katillukacia bat inciaba edo lenteja artu eta umeagaz beragaz jolastu, bere eskuak garau artean sartu araziz?

\* \* \*

Jolas oneitan umea inpresio oso ezbaridiñak artzen ari cia, eta beraz, gauza barriak ikasten.

Onein antzerako beste milla jolas sortu dagikeguz, bere ikumenez eldutasun batera eltzeko. Urte batetik laura bitartean lortuko dauan here izkuntza, eldutasun onetan oiñarritzen da.

Bestalde, «ikumen» joko onek aurrerantzean be garrantzi berezi bat izango dau.

Umearen izkuntza amabi illabetetik lau urtera bitartean osotzen da.

Izkuntza-azkuntza orretan esku artean darabiltzan gauzen izenak askoz be ariñago ikasten ditu, ikutu barik baiño.

Umeak ikusi eta ikutu egin bear dau, ikastea nai badogu beintzat.

Umea ez da izkuntza arloan asmatzallea. Betaz, leen esandokoez gaiñera, beste oneik be aurkeztu dagiketsoguz: gauza txikiak eta aundiak, labanak eta ez ain labanak, luzeak eta laburrak, gozoak eta mingotsak, usaindunak eta usainbakoak, otzak, epelak eta beroak, astiroak eta ariñak, eta abar eta abar. Jolas guzti oneitan, eta norberaren laguntzaz, umearen izkuntza aberatsago izatea lortuko dogu.

Eta izkuntzaz dator baita bere arritasuna be.

**JOSU LEGARRETA**



## EUZKOTARREN ABERRIA, EUZKADI DA ALDAKUNTZAK

Aurtengo azillean beta dira 75 urte, egi eder ori adierazo ta irakatsi euskun irakasle ta gizon aundia il zanetik ona.

Baiña gure Sabin berbiztuko ba'litz, konforme egongo eta leiteke berak sortutako Alderdira etorri-barri diran edo inguruan dabilzan batzuk darabilen euskerazko idazkerez eta berak eskiñitako aberri-izenaren aldaketakaz ?

### ZEIN EUSKERA?

Etorri-barriak esan dogu, baiña ez dira eurak errudunik aundienak. Euren buruak jelkideztat erakusten dauskuezan jaun ezagun batzuk baiño.

Jelkide epelak, konplejoz beteak, Arana Goiri'ren argazkia ate-ostean ezkutauta eukiko leukeenak.

Demokrazia edo dana dalakoa etorri zanean, Alderdiak Iruñan bere guda-osteko lenengo Batzar Nagusia ospatu eban.

Luzero eztabaidatu ondoren, izkuntzari buruz erabagi au artu zan: Alderdikide bakoitzak bere askatasun osoa eukala euskera errikoian naiz diralako «batuetan» idazteko, baiña agiri ofizialak Alderdiak beti erabillitako gipuzkoera osotuan idatziko zirala.

Erabagia ba artuta dago!

### JOKABIDEAK

Baiña orra or nundik nora, zirt emendik, zirt andik, noizik bein sator korotzak begien aurrean agertzen jakuzan.

Izparlariak dira orretan azpi-jantzaillerik trebeanak.

Guzurra emendik, erdi-agia andik, atxakia ta labankeria geienean, eurak dira erri-euskeraren etsairik aundienak.

Antxiñatik susmo txarra artu geunsen izparlariak ezagaturik.

Ez genduan zalaparta makala sortu, egia esan gendualako. Arrezkeroko jokabideak, utsik ez genduala egin erakutsi dauskue.

### GUDALDIAK

«Gudea irabazteko, gudaldi batzuk galdu bear dira» esan ei eban norbaitek, agintariai erantzunez. Eta or jarraitzen dabe jo ta ke.

Gurea gutzat eta zuena erdi-bana, aurrera eroanez, or agertzen dira sarritan Alderdi arazoetan be aolkulari, jakiña, beti urak euren errotara eroateko asmoz.

### EUSKALTZAINDIARI BEGIRA

Azpi-jana aurrera daroe, baiña ez guk igarri barik.

Egunero euskera bat erabilli ezker, alderdikideak be oituko diralakoan diardue.

Bein irakurri genduan zergaitik euskera «batua»-ren arazoa Uri-Buru-Batzarretik Uri-Buru-Batzar aztertzen ez zan, gero Euskaltzaindiaren araupera makurtzeko... eta dakigunez Gipuzkoa'ko erriren baten «aolku» orrerri jarraitu dautsoe.

### EZAUGARRI BAT

Baiña joko zikin ori, esanak esan eta gertatuak gertatu, salatu-bearra dago al dan lekutik, gure eskutitzak otzaretara joaten dira ta.

Ara, alderdikide: Satorra edo arra non dagoan jakin gura be'dozu, ona emen bere ikurrik nabarmenena: *Euzkadi* itza s'gaz idatzita ikustea.

Ori ikusten dozunean, naizta sagar koloregorriduna izan, barruan «arra» daukala sinistu egidazu!

Aldizkariak, agiriak, Banko-etxeak, kutzak, sindikatoak, talde politikoak eta abar luze baten, idazkeran s aurkitzen ba'dozu, arretaz jarri zaite! Or nunbaiten Arana Goiri'tar Sabin'en etsai bat dago, naizta aurrez-aurre ago gozodun agertu.

ARENAAZa'tar Josu'k

# AMA- SEMEAK

## SENDIAN

Bein baten, mendi baserrian, zazpi seme eukazan ama bat bizi zan.

A sieran zazpiak bat egiñik bizi ziran, ezertariko asarrakuntza barik.

Bat edo bat indarraren bidez sartzen ba zan amaren arxean, semeak, danak batera, indarrez ateraten eben amaren etxetik, baña atetik kanpora egoten ziranean, semeak ez eben aurrera jarraitzen.

Etxe au erri biren artean egoan ezkerro, kanpotarrak era bitakoak ziran.

\* \* \*

## BEREZIAK

Arritzekoa zan, eta arrituta gelditzen ziran inguruetako jendeak, etxe aretan jasoten zanagaz.

Ama semeak izkera ez ezagun baten bitartez ulertzen ziran, ludiko izkuntzarik zaarrenatarikoa ei zan. Gaiñera beste era beteko izakerea eukela esan leiteke.

\* \* \*



Amaren etxean zazpi seme bizi dira, lan alde batetik eta iri bestetik, Kanpotarrak ipiñitako muga bategaitik bananduta.

## BANAKUNTZEA?

Baña sendi guztietan jasotzen dan legez, asarrakuntzak sortu ziran anaien artean eta apurka-apurka kanpotarrak banandu eben amaren etxea, alde batetik iru anai eta bestetik lau itxiaz, au da, iru anai erri bateko goi-aldean eta beste laurak beko errian.

Baña ezin banandu eben anaien arteko maitasuna, ez eta euren izkuntza, amak irekatsitakuto izknza: EUSKERA.

Ez eben astu amak irakatsitakoa, gauza gustien gaiñetik ama baten semeak ziran!

\* \*

## EKIÑA

Kanpotarrak, naiz eta erri bitakoak izan, euren elburua bat zan: Amaren etxea apurtutea, sendia desegitea.

Baiña anaien arteko maitasuna bizirik egoala ikusirik, beste bide batetik jo eben.

Beko errikoak auxe esan eutsoen anai zaarrenari: Zu ez zara ama orren semea, ez eta mutil orreen anaia, urten egizu etxe orretatik, zure lekua gure artean dago, Gaiñera emetiko aldean lau baño ez zare bizi.

Beste aldean bizi ziran anaiak be, au entzuten eben: Zuok, etxe orretakoak baño lenago, gure errikoak zare.

\* \* \*

## LANA TA INDARKERIA

Erbestetarrak, naiz eta aletin aundiak egin, ezin eben lortu gauza andirik.

Orduan beste era bateko ekintza-bidez asi ziran. Goiko aldekoeri ez eutseen lanik emoten, orregatik etxetik kanpora urten bearrean aurkitzen ziran.

Bee aldean osteria, indarkeriz sartu ziran.

Beko errikoak euren gerra bat izan eben, eta amaren etxeokoa nastaurik, bertarantza ja eGien

Semeak, naiz eta batzuk kanpotarren alde jokatu, geienak batu ziran, baña alperrik izan zan, arrotza zan nagusi eta kondairan lenengoz, arrotzak indarrez sartu ziran amaren etxera.

\* \* \*

## BIZI GARA !

Gaur oraindiño, anai zaarra eurakandu gurean dagoz, baña burua sendo dauka.

Anai txikienari bere izkuntza astu egin jako, eta erbestearena ikasi dau.

Orrela ta guztiz etxeak zutik jarraitzen dau, semeak bizirik dagoz, eta semeak bizirik dagozen artean ama be biziko da.

Izkuntza be bizirik dago, aztu ebenak ikastera dagoz. Etxe orrek zutik jarraituko dau, semeak euren nortasuna ez ba dabe galtzen, zaindu dagigun euskal JAKINTZA!

Semeak NAFARROA, BIZKAIA, GIPUZKOA, LABURDI, ZUBEROA, BENAFAKOA eta ARABA dira eta danaren ama EUSKALERRIA da.

ENDIKA



# ZER...?

## **GALDEZKA**

Gizon zurra galdezka dago. Jokabide au bere nortasunetik jatorko gizonari. Zer naz ...Zerdago !... Ze eskubide daukat... Edota baita ere, ze eginbear daukat nik lurrean... Lurra norena cia... Batzue-na? Guztiona? Ona emen, gizon zintzoa ilteko astirik gabe aurkitzen cia gizartean...

Duintasuna daukan giza-semeak, burua argituagaz batera, norbere bizia ta inguruko lurra ta jazoerak misterio artean ikusten ditu.

Dana da eskutua ta ezin ikusi dau gauzea berak nai leuken argitasunez.

Baña maleta aundi bat pazientzi edo eroapen artu, ta bere inguruan, batera ta bestera begira asten da, barruan daroan kezka ori nundik edo zelan argituko.

\*

## **GORPUTZA TA GOGOIA**

Gizonak biziaren indarra daroa bere barnean. Gorputza ikusten dau, gogoia oster, ez dau ikusten.

Onen bion artean bizia sortu ta osotzen cia. Biok dira bearrezkoak.

Ez gorputz utsagaz eta ez gogo utsagaz gizon edota pertsona ez litzake izango.

Gorputza ederra ba'da, lana egiteko, naiz jana artzeko, bizi egin bear cia ta, burua bikaina cia ikasteko, jakiteko ta gizadiari argi egiteko.

\*

## **BIOTZ EZIA**

Baña gizontasuna osotzen daben beste almen itzal bat ere ba-dogu: biotzaren maitasuna.

Gizontasunaren ardatza, ortxe, ete dagon esango neuke.

Biotz ezi-gabea, aker adar andi baten antzekoa cia Atsa dario.

Biotz, ondo, ezia barriz, larrosa mardul go-riaren irudia cia. Alderdi guztietarako usain eder estimagarria zabaltzen dau.

\* \*

## **LURRA TA EGILLEA**

Era ontan argitu ta ezita dagon giza-semea edertasun bizi begira dago: gure lurra ta beronen Egillea.

Euskalerrria, millaak urteetan, eusko gizonak bere izerdiz, jakituriz ta maitasunez landua cia.

Eusko gizon osoa, ementxe, ari izan cia lanean bere almen guztiekin, arako agindu andia egiten: «Zuen izerdiz landu egizue».

## **ZER LANDU?**

Galdera, garbi garbi, emen, dator: Zer landu bear dot? Euskalerrriko lurra ta gizona dira gure landu-gai.

Onenak dira.

Onetxek artu ditugu bizi-az.

Ta onei erantzun bear deutsegu.

Euskalerrriko lurrean euskaldunak askatu bear dira.

Berezko zuzentasunez lur au deika dago egiaren alde.

Egia beronen bizia da, millak urteetan, jatorriz jagokona.

\* \*

## **NORI LAGUNDU?**

Euskoterren izakerazko bizia askatasun egarriz, gizontasunez, langilletasunez orniduta egoan.

Euskaldun zintzoen ezaugarriak, aitatu ditugunok ziran, gure ama iur ezagutu nebanean.

Euskaldunari bere buru ta biotzak eskatzen deutso, gizonak gizontsua ta langillea izan bear dabela.

Mundura etorri ba'da, serbitzurako etorri dala.

Lenengo etxea, ta gero, norbere erria ta aberria eclertu ta aurreratu nai ditu.

\* \* \*

## **KATEAK APURTU**

Gaur ere, euskaldun jator asko doaz erriak bear daben bide ortatik.

Ekin eta egin Euzkadiren onerako dana, bi-aitzako katei danak apurtu ta eusko bizitzari, era guztietara, bere sena emon arte.

**SOLOZABAL'tar Paulin**

# IDAZLEAK

## LANGILLEA ZAN

Urte bete ta zerbait geiago da Manterola, Zeanuri'ko apaiz langile porrokatua il zala.

Eleiz-karrera amaitu ondoren, Eibar'en, Ingalterra'n eta Zeanuri'n osotu eban bere arimazaintza.

Nekegatxa genduan. Naiz-ta urte mordoia bizkar gainean, beti ebillen lanari lotua, eleiz-arazoetan, irakurten edo-ta idazten.

Egoki da noizik-bein beintzat gogora ekarte aaldiaren laburra; esan nai dot, urteak zelan doazan murgilduz joanaren baterean.

Ez da gatxa egi onez konturatzea. Manterola, alan be, gaztetan naiz zartzeroan, urteen pixuari jaramonik egin barik, lanari emona bizi izan zan beti.

Arekin artu-emonan izan ebenak ondo dakie aren auturako grina.

Larogei urtaz gora ebillela be, ez ete zan gazte aren pentsakera?

Beste norabide barik labanka doan aaldiari begira egoteke, bere arloari itsatsia bizi izan jakun Gabirel.

\* \* \*



Barandiaran eta Manterola, Jakintza ta Olerkaritza

## ATSEDENEAN BERTSOLARI

Aldian batez, baiña, bear ditugu atsedene-orduak be.

Eten bagako tiran dagoan sokea apurtu leiteke. Bardin gure bizi-aria be.

Olakoetan Manterola'k, asnasa apur bat artzeko lirikaz asazkatu, arindu oi eban bere barrena.

Orrela onduak ditu eundaka ta eundaka neurtitz txairo.

Bai, olerkari punterengo ez dala be, txairoak dira apaiz langille onen biotz-eragiñak, neurtitzetan kaiolatuak.

\* \* \*

## GABONETAKOK

Emen, alan be, Gabon aldekoak bakarrik aitatuko dodaz, beste guztiak albora itxita.

Dakigunez, euskal idazle ugaria izan zan; ainbat liburu ditu euskeraz, argitaraturik eta argitara bagerik; orrezaz gaifi, «Jaungoiko-Zale»-n, «Ekin»-en, «Zeruko Argia»-n, «Karmel»-en, «Oler-ti»-n konta-ekin ala lan agertu zituan. Olerkiak egitea, esan dogu, asazkaldi bat izan zan arentzat.

1918'an azaldu eban lenengoa, **Gen-tza, Jauna !**, «Jaungoiko-Zale»-n agertua.

Gero, barru lertu-bear orri jarraituz, 200'tik gora mamindu euskuzan.

1921'an **Goi-izpiak** 42 olerkizko bertso-liburua emon auskun.

\* \* \*

## LIBURUA GERTU

Il aurretxoan, «Gabon Egunekeko Olerkiak» deritxon urteak zear Gabon egunez egindako poesiz osoturiko kuadernu azi samarra bialdu eustan, nik ikusi nengian.

Ingurrazti onek 36 olerki dakaz, 1937 ezker egiñak danak.

Lendik be ba-ebazan gai orri buruz egindakoak, baiña urte orrez gerozkoak nai zituan Gabon-olerki bilduma orretan sartu.

Erri-miñez, jai pozgarri orreik norbere sukalde berotik urrin igaro bearrak eraginda osotuak dira geienak.

Biotz-dardara beratz unkigarriak.

\* \*

## ERBESTEAN

Eurotatik banaka batzuk, obeto, estrofa batzuk papereratuko ditugu emen. 1937'an, umetxo aldra bategaz joanda, Ingalterra'n, London'go Honor Oak'en aurkitzen zan; eta bost lantxo eskiñi eutsozan gai ber-berari, Jesus Umetxo-ari.

«Belen'en» deritxona egitean, Aurtxo txiroa dakus askatxoan etzunda, Maria ta Josepe ta gotzon taldea kantari biran ditularik.

Naiz-ta bera biotz-zauritua, pekatarriak ugari ta siñisge gaixoak ikusi, Kristo maitasun ez satorkun ezker, ez dau iñor itunik gura.

Onela dabez:

*Ludiz pozez  
gaizka-bidean,  
laino baltzik ez  
ortz-urdiñean.*

\* \* \*

## BIOZKADAK

Urrengo urtean be toki beretik doaz goizantxo olerkariaren biozkadak.

Lurruna iduri, nunbait.

Askatxoan irri-barreka daukon Umetxoari, amak Ari begira, zeru goiak itxi ta zelan jatsi dan lurrera diñotso.

Eta Aurtxoak erantzun:

*Gizon gaxoen arrokeriak  
ekarri nau ni zerutik,  
zelan ibilli erakusteko  
apallasunan bidetik.*

\* \*

## IZARRARI

Apal ta txiro izatea Jainkoari jakoz batez be atsegin; gizonai ori erakustearren jatsi da orren beeko egiñik.

Norbekeri iguingarriak **gogor** dautso gizonari biotza. Beti «Neu, neu» diño gizonak;

Jainkoari ez jako ori eder, bai osterapalaren eskari beroa.

Gau orretan bertan, lo dago olerkaria; baiña argitasun bereziak itxartu dau; izar bat da, dizditsua, leio zirrikituz izpi niriñrtiak bialtzen dautsozana.

Jagi da, ta luma arturik, «Belen'en Izarra» idazten dau; amazpi aapal-

# Gabirel Mant

diko koplada dozu Ume jaiobarriari eskiña.

Ludia baltz; Kristo argi jori, Izar dizditsua.

Gautar artzainak, txandaka ardi-zaintzan ziarduenak, kantari aratu ta Josu gurtu daroe buru-makur.

Bardintsu dagi geroztik milloika ta milloika biotz zintzok be.

Olerkariak onela:

*Arrezkerotik ona  
Belen'go Izarra  
izan da guretzako  
Eguzki bakarra.  
Beratu maite ez daunak  
ez dau maitasunik,  
ez zorion bizitzan,  
ez itxaropenik.*

\* \*

## EUROPA'KO GUDEA

1940'an Honiton-Devon'en bizi da olerkaria.

Aspaldian beragaz daroan ezpata, zorrotz ta odolko, gaitz jakon jaurtzea.

Leen Euzkadi suntsitua, ta ainbeste erbeste.zear, goibel eta tristerik; orain, oster, Europa osoa gerra txinpartaz.

*Europa zear milloika  
espetxetan ta gosez,  
sendi sakabanatuak  
alde danetan eurrez.  
Euzkoak, barriz, or gara  
ludi zear etxege,  
aberri-min biotzean  
iñon eruki gabe.*

\* \* \*

## GABON-BARRIA

Eta Gabon gaba da, ezkutu sorgiñez gainezka.

Gau lillurakor, eder! Alan be olerkariak deika:

*Gabon gaba/ Gabon gaba)  
zorionan geznaril  
Zure gomuta zergaitik  
jat gaur ain samingarri?*

## SAMIN-NEGARREZ

Ez da arritzekoa. Sarnia latzaren geriza daroa begiertzean dizdika.



# Manterola, Olerkari

Illun dauko barrua, ango ta emengo zoritxarra sumatuz.

Zoritxar luzea nunbait. Eta dabes:

*Laugarrenez erbestean  
urrun yoat biotza...  
zergail-ik samin-negarrez  
datorkit idazkortza?  
Lalerrien lege bakar  
gorrotoa dirudi,  
eriotz eta Iriskaniza  
izar-naiak alkarri.*

\* \* \*

## ZORIONTSU

Alan eta guzti be, poetak ez dau samiñik nai gau zoragarri onetan.

Jaurti gomuta samiñak, biotza alai zaindurik.

Gabon gaba da, Kristoren jaiotza. Kantari darrai:

*Eta naiz-ta bakar egon  
sutondoan idazten,  
ez asperu gogo-alai  
Gabon gaba abesten.  
O Gabon zoriontsua/  
Zori txarren ezitia/  
Zu zara gizon danontzat  
Goi-maitasun Argia/...*

\* \*

## BAKE-BIDEAN

Urrengo urtean, 1941'an, Inglewood'en ospatzen dau Gabon gaba.

Mundua sutan egoan, odol kiratsezko garra eriola.

Kristo baiña, orduan be, beiñola Belen'era lez, bake eskinka.

Aingeruen abotsa entzuten zan: «Aintza Jaunari goietan eta bakea bean gogo oneko gizonai». Manterola'k doinu ozenez kantatzen:

*Donoki emaitz bardingabea,  
gizarte zoron-iturri;  
ludi ontako naste asarren,  
aitu-eziñen osaki.*

\* \* \*

## ETXEAN

Auxe dogu, bai, bakea, gentza, Kristok zerutik opa dauskuna: argi bero biziarentzat, kemena lanean, pozatasuna giza-biotzentzat.

Kristok Belen'en jaiorik ekarri euskun maitasunezko bakea; auxe da bakarbakarrrik gizonen zorion-bldea, auxe baita errientzat ondasun-bidezidorra. Bai nor eta bai erri, ortik jorik izango benetako aurrerakuntza.

Gau baltzak igarri bage bere amaia izan oi dau; baita zeru urdiñaren lil-lurak be.

Gure apaiz onari be, amaika urtetan erri-miñez eta bake-zale iraun ondoren, erbesteari agur egin eta etxeratzeko zoria eldu yakon.

1948'an Euskalerrira biurtu zan.

Eta 1952'garreneko Gabonak Zea-nuri'n ernon zituan. Bere erritar eta enparauak,t bei lez, Kristoren oiñetan,

inguruka, ikusi nai ditu: zeru-goian Nausi dana agertu bait da Belen'en, gizonen maitasunez.

Gure biotz arrizkoak maitasunez birrundu nai ditu, maite-arragoan sukiskaldurik.

Labe ortara dei degitse guztiai, bera aurrelari dala. Aska aurrean auspez, onela dau Aurtxoan otoizten:

*Zu nigaitik apal-apal  
maitasuna eskintzen,  
ni barriz erdiz-erdizka  
Maitasuna maitatzen.  
Sulu nire biotz otza,  
gartu zeure eskarrez,  
beti bizi Ia il nadin  
zure maitasun garrez.*

^

## URTEZ-URTE

Orrelaxe urtez urte abesten dautso Kristo jaiobarriari.

Gabon, izan be, poz-aroa dogu: gau au zoriontsu biurtzeko, urte-barru kanpotik diranak, poz-pozik etzeratzen dira, anaitasun zoragarri apar txeratsua egiñik.

Gorputzeko ta arimako lokarriz alkar estutuaz, sendi ta erri osoak nai ditu Manterola'k Josu'ren begipe gozoan.

Ezin neurtu ezelan be Jesus'en guganako maitasuna: gizona errudun, obenlari izanik.

Berak leporatu zituan onen gaiztakeri ta pekatu guztiak. Maitasunari maitasunez erantzun bear.

Eta olerkariak, 1964'garreneko, Gabon gabea, onela dau abesten:

*Zegaz ordaindu/aliko dautzut nik  
zeure maitasun andia,  
biotz-biotzez/eskiñi ezik  
neure bizitza guzlia?  
Ume mailea/ Ase nagizu  
zeure mailelasun garrez,  
ibilli naiten /ordu danetan  
Zugana naroiñan bidez.*

\* \*

## GORROTO BARIK

Andik lau urtera, 1968'an, erabat ots dagitso Gabon-txilin zoliak.

Illuna urtzen dauan otsa! Gorroto ta ezin-ikusia uxatuz, biotzak maitasunez umotzen dauazana.

«Zer dozu, Gabon?» deritxonaren koplak zorion-ixurka daukaguz, iturri gardena iduri.

Onela diño, amultsu ta bigun:

*Zer dozu, Gabon  
gizon guzliak  
popez baterik  
izteko?  
Biolzetalrik  
gorroto baltza  
ta asarrea  
kentzeko?*

^

## ERRIA POZIK

Edu orretan nai eban gure erria; ez garraztuta, pozoi-osin, alai ta bizkor, maitasun-labe baiño. Pozari atea egegi oi dautsaguzan garai onetan, urtero, orrelaxe ariltzen zituan bere biotzaren ikara ta txiruliak.

Idazle jatorrak, izan be, bere antzeko gura dauz irakurle ta entzuleak. Egiz-

ko olerkari danak, are geiago; bere pentsakera ta biotz-zauzkadaz jabeturik nai ditu guztiak.

Idaztearen, olerkariaren xede ta asmoa, bada, erria garraztu ez, baiña poztarazo ta jasotea izan bear dau baitatik bat eta oroz-gaiñ.

Etika ta moral aldetik batez be, ori ez dagiana badaezpadako idazle txararra dozu; ez izan ezpairik.

\* \*

## EZ GARRAZTU

Zoritxarrez gaur, barrikerian murgildu ta norbere politika alderdira irakurleak be narrastu nairik, konta-ezin ala txepelkeri ezain idatzi oi dira.

Zer dagi orrek? Gaur askok darabilen erak, gorroto ta ikusi-eziña erein parra-parra, beintzat.

Ainbat arlotan daukagun ezjakiñez baliaturik, ziri ederrak sartu ari ta oni; garrazkeriaren zitala biotzetan narberatu.

Zoritxar andia, gerra ta antzeko istilluak dakarrena baiño be itzalagoa sarri. Baiña, olakoxeak gara!

## ERRIARENTZATx

Manterola'k ez eban ori nai, itzez eta idatziz erakutsi euskunez. Alan be gizonaren txarrerako makurra ikusiz, onen-barne-muiña garbitu ta grazi-argi zuriz jantzi naiean, Belen'go Aurtxoagana eroan nai ginduzan, Arek guri biotzak zerutar bedeinkapenez orni eiskuzan.

1972'eko Gabonetan idatzi euskenez, artzaiñak Belen'en itaunka dagoz ta goi-argi eske. Ta Josu'k erantzun eutsen:

*Bizia, Egia naz ludian  
gizondua zuekailik;  
zuek, gaizkaluz, ahlenduleko  
betiko zori txarelik.*



Manterola, olerkari lez, ez dabil bere gogapenak adierazteko zoko illun billa; argitasuna dau eder, ez illunaren dirdir goibela.

Aren idatzi guztiak dozuz argiak, baita oler-lanak be: irakurri utsez dozuz ulertzen.

Erri izkera jako atsegin, gure base-rritarrena, jakintzaz betea.

Aita ONAINDIA'K

---

# BASERRIA

---

## Kezkak eta pozak

Baserria guztiz guztiz galtzeko arriskuan daurkigu.

Bere araberan be gure euskera maiteak porrot dagi.

Gaur gure baserriatzaz zerbait esatea gura neuke, beste ereti batean euskereatzaz be jarduteko asmoan, ain zuzen.

### AURRERATUA

Euskal-baserria gaur eguneko tresna, asmakizun eta aurkibarra guztiakaz ornitua dogu.

Danak ez ba'dira be, geienak argi-inda-rezko ta butanozko esku-labez ez-ezik, lau-labeko suete aundi barriakaz, garbigaillu, azpil-garbitzaille, irrati ta urrutizkin ta ikuskiñez jantziak doguz.

### GAZTEAK

Ori ta be, gazteak batik bat, baserritik anka dagie: batzuk lantegiak bide dirala, ortik ataraten daben illeroko diru presku, labankorraz nasaia go biziteko; neskak, bertako bizi-modua gogorregia dalakoan eta ezkontzerakoan uri aundiak kilikigarriagoak jakezelako.

Guztiak aiko-maikoka eta atxakiak ugari, baiña bitartean solo ta zelai aunditxoena, bearrerako esku-premiñagaitik edo, eta bertan gelditu oi diranak estu ta larri dabilzela, lerrondo, piñuz inguru guztiak betetzen diardue, tamalez.

### URITARREN ASMOA

Ba dakigu egungo egunean gizakunde edo «zibilizazio» deritxogun zer onek be indar ta erakartze berezia dauala, baiña ori ta be, atzekoz aurrera gabiltzala deritxat.

Uritarrak, udaldian batez be, eta geien bat kuntza (seksu) bietako gazteak, baserri utsen billa daragoie, bai jai-aldi ta aste-azkenak alai ta kutsadura barik igaroteko, bai askatasun ta nasaitasun (batzutan nasaikeri be izan leiteke) geiago izateko ta baita be, txalogarria azken au, zer garrantzitsuagoak burutzeko.

Esate baterako: Euskerazko ikas-aldiak txanda bat edo geiagotan izan, ingurumariko baserriarrakaz artu-emonak euki, eta euren-gandik lengo ekandu ta usuario zarren aztarrenak ikasi ta gerorako jasoaz, euskal oituren eten bako arnasea ta ezaguera alik eta ondoen sakontzeko.

### BASERRIARENTZAT BURUBIDEA

Lengo aldiak beste batzuk dakarrez eta gaurko belaun-aldiak ariñegi doaz.

Aldatze onen iradu ta leiak, egiz, euren zurrunbilloan zorabiauta eta itota lez izten gaitue.



Gaur, batez be, burua lepoaren gainean tinko ezarri-bearra dogu.

Baserrien egitamu, burubide (planifikaziño) ta lantze premiñazko bat bear da, eta lenbaitlen onetan ekin eta adoretu jardutea oba.

Esango daustazue: Ez ete dagoz beste gauza asko Euskalerrian zuzentzeko ta antolatzeko?

Bai, bein. Baiña niretzat baserria sustraia da, eta ezin daikegu bera ezarian bertanbera itzi jausten.

Lotsagarria litzake.

Len esan ez dautsuedazan beste barriztatze batzuk be bear ditue baserriak.

### ERREZTASUNA

Barriztatze onein bidez, bertako lanak erreztu ta arindu oi dira.

Traktorak, bedar-zuloak, kortako parri-llak, beiak erazteko tresnak, eta abar bear dira.

Lengo lanik gogorrenak, laiaketak, arta-jorrek, artazuriketak eta, geien baten joan ziran betiko.

Olan be, baserriar gazteak, eutsi al dozuen eran baserriari !

Ni be, alde bietatik baserriarren semea nozue, eta gaztetan joaten nintzan Bilbo'tik bedarretan eta, laguntzen.

Orain beste laguntasun onuragarriagoa bear dozue. Aurrezki-Kutzak, Euskal-Batzar Orokorra ta abar. Ortarako be egitamu, burubide bat bear da.

Ea ba, guztion artean, baserria zaintzen eta barriztetan dogun !

Geroak eta euskereak eskertuko dauskue!

ARREGI'tar Josu'k

# Algorta'n, bizkaiera ikasten



*Aita Markos Olabari, ikastolako irakaslea*

Aurretik.

Irakurle, laster ikusiko dozuz idazlantxo bi bizkaieraz idatzita. Zuk esango dozu ondo ala txarto dagozan. Baña gauza au obeto ulertu daizun, aurretik argi apur bat emoten noatzu.

Gu, Algorta'n bizi gara. Erri onetan, Irukoiztar edo Trinitarioak etxe bi daukaguz. Bat oraintsu egiña; bost urte bakarrik daukaz, «Santisimo Redentor» bere izena dala.

Etxe onetara euskera ikasten datoz, bai umeak, bai notin nagusiak. Irukoiztar bat da irakaslea. Bizkaiera

irakasten da emen. «Euskalki eder eta aberatsa dogu bizkaiera, euskaldun askok etxean eta kanpoan erabilten daben euskalkia» (ZER, uztailla 1977, 1 orr.)

Noren idazlantxoak agertzen dira gaur emen, aldizkari onetan? Luke ta Joseba Andoni neba-arreba bikotxarenak. Euskaldun barriak, 20 urteko gazteak. Gure ikastolatxo au zabaldu zanik ona, zintzo zintzo etorri dira astean birritan euskera ikasten euren lagunekaz batera. Benetan gauza pozgarria da olango zaletasuna ikustea gure gazteen artean. Mota onetako ikasleak ikusi ezker, itxaropentsu ikusten dogu etorkizuna.

Gure euskera ederrak merezi dau olango maitasuna. Mundu guztiko jakintsuak goraltzen dabe ago batez gure antxiñako izkuntza. Entzun zer diñoan Marr jaunak, Tiflis'ko (Georgia) irakasle ospetsu onek: «Urre gorritzko dorre bat zutundu bear geunskio Euskal Erriari ta bere izkuntzari, beti agirian eta bizi-bizirik egon daitezen».

Bizkaian 1.152.394 bizilagunetatik 174.366 notinek itzegiten dabe auskeraz. Kopuru ori ugaritzen doa egu-nero, Algorta'n beintzat, gero ta euskaldun barri geiago ikusten diralako.

## Gure txangoa

**Joan dan Urrillaren 12'an Algorta'n asi zan gure txangoa. Goiz-goizetik, zazpiretan gitxi-gora-bera, gure euskerazko talde guztiak eta adiskide batzuk alkartu giñan gure ikastola aurrean. Andik, danak batera, Baiona'ra joan bear izan genduan, autobusez.**

**Guk, gure janari ta edaria autobusean sartuta gero, asi genduan txangoa posez beterik.**

**Algorta'tik mugaraño guztiok abestuten, itz egi-ten eta gure lur ederra ikusten ibilli giñan.**

**Behobia'ko mugan ertzain bat sartu zan autobusean eta bakoitzari eskatu euskun gure idantidako karneta edo pasaporte. Gure artean, iru lagunek ez ebeza euren karnetak ondo, orregaitik ertzaiñak poliki-poliki baña gogorrez esan euskun lagun oneik itzuli bear izan ebela; olan itxi bear izan genduzan mugan.**

**Au jaso zan arren, guk jarraitu genduan gure bidea.**

**Baiona'ra elduta gero, bakoitza bere aldetik joan tan, batzuk dendetara, beste batzuk eliza-nagusira, besteak euskalerakusetxera.**

**Nire ustez, Baiona'n iru gauza berezi dagoz; lenengoa, eliza-nagusia eta onen barruan bere klaustroa, sderra benetan, gotikoa da, nire iritziz gotikoa estilu sderrena da, bere torreakaz, rosetonakaz eta abar.**

**Bigarrena, euskal erakusetxea da. An ikusten ioguz, guk euskaldunak (besteak ere) gure kondaira )soa, gure bizi-moduak, gure kirolak, gure kultura 'ta gure gizon bereziak. Euskaldunentzat Baiona'ko Euskal erakusetxea gauza maitagarri aundi bat izan )ear da, or dagoalako gure nortasuna.**

# BARRIAK

**Irugarrena: garbitasuna da. Baiona'n ez dozu zamara, paper, eta abar lurrean ikusiko.**

**Gero Baiona'tik Biarritz'era joan giñan, baña len denda aundi batean sartu giñan zeozer erosteko. Biarritz'en bere ondartzat ederra ikusi genduan.**

**Arin arin Donibane Lohitzun'era joan giñan Agirre'tar Joseba Andoni'ren illobia ikustera, baña ilberria itxita zan. Gure artean batzuk sartu ziran eta ikusi eben Lendakariren illobia. Andik portua ikusteko joan giñan; an zeozer artuta berriro asi genduan bidea etxerantz.**

**Biriartou mugan ordu bete bat egon giñan gure lagun bi itxaroten, baña eurek Behobia'ra joan ziran, eta ez giñan aurkitu; guk jarraitu genduan bidea eurek barik, eta eurek senide batzuen etxean lo egin then, eta urrengo egunean autobus bat artuta, euren etxera itzuli ziran.**

**Gu gabeko amabietan eldu giñan Algorta'ra, nekatuta bai, baña alaitasunez beterik be, gauza eder tsko ikusi gendualako.**

**ELEXPURU'tar Joseba Andoni**

## Gure txango



Urrilako ille onetan Euskadiko Iparraldira txango bat egin nai genduan.

Ta alan izan zan. Txangoko eguna eldu zan. Danak alai-alaiak egozan, ta arantz laster urten nai genduan.

Goizetik autobusean urten giñan; zazpi ta lauren orduetan.

Eguna eguraldi onagaz asi zan. Eguzki ederra ta zeru garbia, lenengoan aize larregi egin arren.

Autopistatik, Bilbo-Behobia, joan giñan ta orregaitik bide laburra egin zan.

Ganera gitarra bat eroan genduan txangoa alaitzeko. Ta buruan ta biotzan euskal abesti asko euki genduan. Laster Donostiatik igaro giñan ta urrun urrun gure Algorta maitea itxi zan.

Arin arin mugara eldu giñan. Muga ori euskaldun guztietzat ez da ona, txarra baño, gure Euskalerrria zatitzen daualako.

Mugan ertzain bat gure autobusera igon zan ta gure iokumentazioa eskatu euskun.

Gure autobuseko iru notin mugan gelditu ziran. Buru .xarra euki eben, Pasaporteak aiztu ebezalako. Gero Baioiaraño zuzen-zuzen joan giñan, gelditu barik. An gauza ilko ikusteko egoan. Esate Baterako: eliza nagusian, euskal atxea, denda aundi batzuk ta abar.

Baiona uri polita da. Etxe luzeak ez dagoz, ta kale ;aztiak garbiak egozan. Ondiño bere aizea ez da txarra >sasunentzat.

An jan genduan landa eder batean danok batera. Ta ;ero ikusi genduan denda nagusi bat, gauza txiki batzuk :rosteko. Denda nagusi orren izena «Carrefour» da. Egoallean oso ezagututa da, gauza mcrkeagoak eukitzeko.

Arratsaldean Biarritz'en ta Donibane Lohitzunean gel-iitu giñan. Biarritz'en asti gitxi euki genduan, baña bere mdartzat ederra ta beste aguza batzuk politik ikusi genluzan.

Donibane Lohitzuneko ildegian Agirre'tar Joseba Anioni'ren illobia dago. Ori ikusi nai genduan, baña gu ara aldu giñanean, ildegiko atea itxita egoan. Nire lagun batzuk ;ure Lendakariren illobia ikusteko oso buru gogorak ego-san, ta bildur barik ildegiko ormatik saltu egin eben.

Gabean nekatutak ta pozik Algorta'ra biurtu giñan.

Egun ederra izan zan. Egun orretan gauza asko ikusi ;enduan, ta batez be asko jolastu giñan.

Agur, gure txango! Datorren urtera ante!

**ELEXPURU'tar Luke**

# Barrero arraintzan

*Udean eta Erri onetan  
Lebatz-zaleak dauz pozik,  
lebatzak eta egaluzeak  
ederto arrapatuak;  
lebatz-zale ez diran entziek  
ez dabe alailasunik,  
itxasue dau danenizal baiña  
danentzat ez poztasunik.*

*Andiak dauka sasoi luzea  
atunez irabazteko,*

*gure itxasoz lenengoz eta  
gero besten jokatzeko;  
emen betzuek erdi kontenluz  
beste batzuk gero eiteko,  
neure aldetik egon daiala  
poztasune dananzako.*

*Gazielugalxe'n San Juan Eliza  
erre dausku batenbatek,  
alailasuna Eleiza ortan  
sarri topa edozeinek;  
ga euzkaldunak la erdaldunak*

*baita bai atzeritarrek,  
arki gendttban alailasuna  
urte askotan ainbatek.*

*Eleiza erre egin babenak  
iñon al dau alseginik?  
zelan eduki legike iñok  
olako gauza eginik;  
Jesus Jainkuek Eliza jarri  
A ita Jainkuek esanik,  
biotza garbi agertu daian  
ba'dattka non egin lanik.*

Erriko jaiak amaitxu ondoren itxasoratu ziran gure arraintzale bizkorrak. Irailla'ren 18'tik aurrerantzian.

Berealaxe urten ondoren, Irailla'ren laugarren Domekan sartu zen itxasontzia izotztutako egaluzeakaz.

Egun ortatik au da, Domekatik aurrentzian asi ziren itxasontziak izotztutako egaluze edo atunekaz eta arraintza onakaz kaiaratuten.

1400 aneikitik (kilotik) 5.000 aneiki bitarte sartu ziren lebatz-zale andiak eta lebatz-zale ez diren itxasontzi andiak, 6.000'tik 16.000 aneiki bitarte.

Bereala jatsi yakeen atunen salneurri (prezioa) Urrilla'ren asierako egunetan.

Egaluze txikiaren salneurria 67 laurlekoraño eta andia, 89 laurlekoraño.

Arraintzaliak ikusirik asko jatsi jaikoala salneurria, geldi-alditxo labur bat egin eben eta ori egin ondoren, barrero atara ziren arraintzan itxasora, baiña aurreragoko arraintza onik ez dabie egin geienak.

Au ertaturik, itxasontzi andiak au da, lebatz-zale ez diranak eta eurok geienak abiatu ziran Kanarias'ko itxasoetarantz.

Gitxien batzuk geratu ziren emen eta eurek itxaropentsu, ikus-tresnakaz arrain asko ikusten ebielako gure itxasoetan eta onela etorri ziren Urrilla'ren erdirako arraintza onakaz, baiña lebatz-zaliek arraintza makalak edo txikiak zituen.

Au zegaitik? Ba amudea edo «maluta» jan gure ez ebalako eta «beite»

gozo jan gure izan ebalako edo ebielako egaluzeak.

Kanarias aldetik datorkiguz OTSAK arraintza onak asi direla lortuten.

Asko poztuten naiz.


Guztiak andik etorritz pozik ikusi dagiguzala. Onela izan daiala gure Jaungoikuaren naia.

Lebatz-zale txikingoak eta txikiak be, pozik dabiltz lebatz gintzan. Oneik be, jaiak amaitxu ondoren, barrero asi ziren itxasora euren ogi-bizitzan au da, lebatz-arraintzan. Barrero urtean ezkerroztik araintza onak dakardie gure kaiara. Salneurritz be pozik dabiltz aspaldion. Oneik be, iraun dagiezala aurrerantzien be, sendirako... poztasunagaz.

## Gastelugatxe

**Guztiz saminduta itxi gaitue bermiotarrok eta abar Gastelu, gatzeko Eleiza ospetsua erretzeaz.**

**Erretzailleak nire ustez ez dira gogoratu zer lan egiten donzen, lan baltz asi-urretik eta geiago erre dabienien.**



**Kristuak izan badira, euren ari-mak gaizkatuteko ba' dabe zer lanik egin ludi onetan.**

**Eleiza a izanda beren sor-unetik gaur arte gazteen eta zarren pozbake eta alai lekua.**

**Ainbatek bake lekue daudela ikusirik Eleiza orretan, zenbatek ez du atera Mezak gu arraintzaliok ondo ibil gaitzean bai osasunegaz eta bai irebaziagaz?**

**Makinetxo bat Meza eta otoitz egin dira Gastelugatxe Jon Bateatzaille Deunaren Eleiza orretan!**

**Bermiotarrok Jon Bateatzailleari gureizan andia geuntzan geienbat arraintzaliok.**

**Jon Deunaren Jaiotza egunen aurrean itxasontziko lemazaiñak eskatuten eutsoen bakotzak bera**

**taldeari «konformidadea» egun orretan eta eleiza aretan mezea entzuteko otoitzak botzez eginaz, bazkari-edariak itxasontziko taldea anaitasun beroaz egiteko.**

**Lemazaiñak baietzak artuaz beren ardurapeko neskatilei esaten eutsen bazkari-edariak artuteko egun ortarako. Oneik gerturik neskatilek baserritarrai astoak eskatuz onei zamatuz eruaten ebezan bazkari-edariak «Olbizarrak» deritxogun zelaietara eta oneitan as-toetaik kendu edo jatsiaz, itxaroten euskuen neskatilek bakotxaren taldeari alkarregaz anaitasun beroan eta onetsitean, janari-edariak artuz bakotxaren sabelak alaituteko.**

**Au, oiturea zan. Oitura alai.**

**Oiture-alai, galdu zen, baiña notintzak iraun ebien edo iraun dabe urte onetako Jon Bateatzaillearen egunerate.**

**Aurrerantzien zer?**

**AZPEITIA'tar Gotzon'ek**

## KONTU-KONTARI

# EZKONDU BAI EZKONDU

**Ezkon-austea edo dibortzioa dala-ta, zarata asko dabil, aspaldion, bazterretan.**

**Albistari ta telebistak be alango barri nabarmen asko dakaz, eta ez gutxitan.**

**Eta andiago, oraindiño, Madrid'eko Batzar Nagusi edo Congresoak auzitan jarri, ta onartu be egin dau ezkon-auste ori, eta legepean jarri.**

**Ez da baiña, ezkonduen auzi ori, oraingo auzi barria. Len be ba-zan, gurean, alango zirri marrarik.**

**Ona zelan konpondu eban Betelu'ko abade zarrak, orain urte asko dirala, onelako zirri-marru bat.**

### PERU TA PRAIXKA

«Peru ta Praixka», senar-emazteak bizi ziran, bein, Betelu'ko errian. Bizi baiño, obeto esan da, burruka baten ebiltzan beti.

Jakiñak ziran Praixka'ren berbak, Peru etxe zan bakotxetan:

—Ba-ator, prakandi, mozkor zikin ori...!

Eta jakiña bere zan Peru'ren erantzuna:

—Asi az, barriro, eperterre lotsabako ori...!

Eta oneixek ziran euren alkarrizketako betiko berbak: mozkor, zikin, eperterre, lotsabako...

### ABADEARENGANA

Alango bizimodu larriz noizbait gogaitu ta aspertu bai, eta ba-datoz, egun batez, erriko aba eta olan esan eutson, lotsa ez lotsa:

—Jauna, zuk ezkondu ginduzun bai, eta zuk bakarrik ausi daikezu gure ezkontza au. Alkarren-gandik aldendu, eta bakotxak geure aldetik bizi gura geunke.

—Ez daukazue bakerik, alkarren artean?

—Bekea... diñozu?

—Bakea..., bai!

—Inpernua lakoxea... !

Eta abadeak, irribarre gaziz:

—Bai, enetxuok, bai...! Orain inpernua lez bizitzeko..., eta zuen alkar amorruez geroko inpernua irebazteko..., obe dozue bai, zuen ezkontza ori len baiño len apurtu.

—Orixe bera diñoagu geuk be!

—Etorri, ba..., biar goizean, mezara..., ezkontza-goizean lez..., eta eliz-atarian egon. Nik egin bear diranak, egingo dodaz.

### ELIZKIZUNA

Biaramon goizean, Meza ezkilak jo ebanerako, an egozan eliz-atarian Peru ta Praixka, euren senide ta adiskideekin.

Laster agertu zan abade jauna, be meza-jantzi ederragaz, eta eliz-mutilla kurutzegaz aurretik ebala...

Peru ta Praixka, bi ezkondu, orreek, aren aurrean belaunikatu ta..., asi zan abadea here liburuan irakurri ta irakurri. Latiñez aurki! Eta here latiñezko mar-mar bitxi orren bitartean, eskuan eroan ixopoa luzatu ta..., kaska batari ta kaska besteari asi zan, sekulako bizkor.

Kasketako orreek gero ta arin eta gogorrakoak ziran, eta itaundu eutsoen abadeari, erdi negarrez, ienaremazte minduok:

—Jauna, jauna...! Asko iraungo etc clau geure ezkontza au austeko ekitaldi onek?

—Auxe bakarrik dakit nik...; Biotariko bat 1 arte irauten dauala ezkontzeak.

—Goazan etxera, Peru —esan eutson Praixka'k ere gizonari—, eta bakean eta luzaro bizi gaitez, zkondu giñean goizean Jainkoari eta alkarri itza mon geuntsan lez.

—O000ri... ! Ori egiñaz kenduko dozue..., )raingo gerrea ta geroko inpernua...

Au esan..., eta abadea elizara sartu, ta mezea moten asi zan.

**ESTONBA'tar Mañuelek**



# EUSKAL-ELERTIA

(S. ONAINDIA)

## GURE JAKINTZA

Gure kultura eskoletan baztertuta egon dala, esan eta esan gabiltz aspaldion. Eta ikastoletan be naikoa baztertuta izan da, izkuntza bera ikastea naikoa arazo izan dan urte oneitan.

Baiña aurrera goaz.

Gaur ikasle asko dira Oñarri-Ikaskintza'ko lenengo urteetan euskera idatzia ondo ikasten dabena, eta oneik goragoko mailletara igoteko gertu dagoz.

Orregaitik, euskal-kultureari buruzko liburuak bear-bearreko biurtu jakuz. Agertu diran iru liburuak, LUTELESTIA, KONDAIREA eta ELERTIA, asko poztu gaitue.

Azkenengo ZER'en aurkeztu genduan Geografia edo LUTELESTIA eta beragaz batera esan genduan zerbait KONDAIRA'ri buruz. Gauu-ELERTIA aurkezten dogu.

Iru liburu oneik oso egokiak dira gure kulturearen lenengo oñarriak ipinteko, geure burua ta geure Erria ezagutzeko.

## AITA ONAINDIA

Aita Onaindia aspaldian daukagu Elerti-arloan berezitatea.

Antxiña atera eban bere MILLA OLERKI EDER liburu txalogarria, gure poesia aztertzeke ta ezagutu-azoteko.

Oraintxe bertan diardu EUSKAL-LITERATURA deritxon liburu gozagarria ateraten. Zazpi ale edo tomo izango dira eta bost agertu dira. Lan ikaragarria edozeiñentzat Aita Santi'k liburu ori egiteke ebatziagaz artu ebana.

Eta orain, ameak txitai janariak zeaztuta ta zeatuta emoten dautsezan antzera, bere billaketa sakona ikasleen aurrean jarteko, Onaindia'k ikastoletarako EUSKAL-ELERTIA argitaratu dau. Bearrezkoa zan eta argitaratzeko ordua be bai!

Berari eta Euba'ko Ibaizabal Argitarazleari, eskerrik beroenak emon-bearrean gagoz irakaskintzan lan egiten dogunok; bizkaieraz atera dituen liburu oneikaitik.

## IRAKASBIDE BI

Elertia irakasteko, bide bi gitxienez artu leiz: Bata, elertiaren motak banan-banan artu eta bakoitxaren kondairea egin. Esaterako: Antzerkiaren, eleberriaren, barru-miñezko olerkiaren, jazoera-olerkiaren, izlaritzaren, izkuntzalaritzaren, kondaira-idazleen, eta abar, barriak emon. Eta bestea gizaldiz-gizaldi edo elerti-aldiz egin mota guztien komdairea.

Bigarren bide au artu dau A. Santi'k eta 7'garren eta 8'garren urterako eta beste mailletarako dan ezkeru, egokiena dirudi. Egia esan, beste mai-



letarako eta gorengo maillarako be egokia cia liburu au. Ain gagoz be-maillan arlo onetan!

## AURKIBIDEARI BEGIRA

Liburuak eskuetan artzen cloguzenean, sarritan Lenengo begirakunea aurkibidera egiten dogu, liburuaren egiturea zein dan ikusteko.

Liburua gizaldiz-gizaldi egiña da. Bear ba'da, °gokiago izango zan elertiaren aldiak ezarte, esaterako : Idazle zarrak edo Berbizkunde Aroa, Larramendi'ren aldia edo aldelarien (apolojisten) giroa, Barritzailleen edo aranatarren denporea, guda-aurrea, guda-ostea, Erribide ta Batu-berri'ren aldia edo gaurko giroa, baiña gizaldiz be ondo egiña da.

Irurogei idazle aztertzen ditu Aita Santi'k iakon-sakonetik, baiña beste 260 inguru dira euren idaz-lanakaz aitatuak.

## IRAKASBIDEA

Olako ikas-liburu baten garrantzi aundikoa da artzen dan irakasbidea.

Ikas-gai bakoitxak zati oneik izaten ditu geientan: Idazlearen bizitea ta lanak, bere idazkerearen azterpena, bere idatz-zati bat, berari buruzko °ritxiak, itaunak eta beste idazle batzuk. Ba dauka ba irakasleak naikoa gai ikasleai aurkezteke.

Liburu atsegiña cia, argia, irudiz ondo apaindua ta margotsua.

**OLAZAR'tar M'ek**

# SANTAKRUTZ ABADEA

**Guztion egotan dabil «Fueroen» arazoa: 1876garrenean galdu gendun euskaldunok ordurarte izan gendun burujabetza.**

**«Fueroak» zer diran?**

**Geure Uri ta Elizateetako ordezkariak Gernika'ko Batzar Nagusietan batu, ta an antolatu ebezen lege jator orrek dira gure «Fueroak» edo Lege Zarrak.**

**Ez ziran, bat batean, jausi gure legeok.**

**Berrogeitakada urtetan egon ziran auzitan, bi gudu ikaragarri zirala bitarteko.**

**Zumalakarregi izan zan lenengo burruka orren gure aurrelari; eta Santakrutz, 1872'ko azken burrukan.**

## GIZON ITZALA

Olan diñoe bereak izandako mutil bizkorrak: «Itzaltasuna eukan gizona zan, azkarra ta ona; ez genduan galduko gure gerratea, arekin jarraitu bagendu beti».

1870'garrenean, Hernialde'n Meza emoten egoan bitartean, «baitzen» edo liberalen guga-mutillak etorri jakozan elizara. Aren billa zetozen. Itxoiteko, ba, mesedez, gosaldu arte, ta bere etxean sartu -ran.

Eta gosaldu bearrean, bere abade jantziak erantzi, baserritarrenak jantzi, otzara aundi bat buru gainetik jarri, igitai bat eskuan artu, eta an joan zan txixtuka, kortako atetik.

Urte bi egin ebazan abadeak Prantzian. Ez egoan, artean, gudarik, guda usaina baiño. Eta andik urte bira guda ori asi zanean, bertan esku artu eban abadeak; baiña ez gudari lez, gudarien kapellau lez baiño.

## BURUZAGI

Andik laster, sekulako burruka izan zan Segura'n; eta «zuriak» edo karlostarrak galdu eta anka egin eben andik. Mendiz igeska joiazala, esan eutsen abadeak agintariak:

«Alperrik gabiltz igeska; eta alperrik galdu dogu Segura. Goazen barriro bertora, eta nik esango dautzuet zelan artu erri ori».

Zorotzat artu eben abadea agintariok, eta ez eutsoen jaramonik egin, ez orduan eta ez gero. Eta atzeraka ta atzeraka joiazan eraso guztietan.

Mutillak azkenik aspertu, euren ordura arteko agintariok zapuztu, ta gure abadea aukeratu eben buruzagitzat. Ez ziran, ez, damatu!

## IGESI

Laster jakin eban abadeak, «baltzen» talde bat joiala Arrasate'ko bidetik, sekulako izkillo pilloaz. Bai...? Bide ertzeke sasi-arte batean ezkutatu, ta bat batean aren gainera jausirik, eukezan arma ta tresna guztiak kendu eutsean, eta Aramaxokora eroen ebazan lepoan.

Eta ereikaz saiotan ebillela, mutil bat zauritu yakon. Beragaz artu, ta baserri ezagun batera eroan eban. Andik etorrela, etsaiagaz egin eban topo, ustebarik; eta atxillo arturik, erriko udaletxean sartu eben, urrengo egunean tiroka iltzeko asmoz.

An egoela, gau illun zala, goiko salako Komunerik jauzi egin, eta eigiari emon eutson; eta aurreko errekan sartu zan buraraño, arnasa artzeko, kañabera bat agoan eukala.

Laster asi ziran etsaiak aren atzetik, argizuzi ta txakurraz lagundurik. Baiña, bai zeral, ez eben aren arrastorik bere topau.

Abadea, bere mutillakin Arangiño'ko atxetan batu, ta eurokaz joan zan, barriro. Eta baserriz-baserri, erriz-erri, laster batu ebazan 500 multil eder, eta lau taldetan eratu euren lau kapitan zintzoen menpean. Eta gudan asi zan, jo or jo emen, Urkiola'ko menditik Irun'go mugaraño, topa al ebazan etsai guztiak apurtu ta ondatus.

## ITURRIOZ'EN

Ernio-ondoan dagon Iturriotz'ekoa izan zan aren erasorik aundiena. Iru millatik gora ziran arerioak, eta Tolosa'tik Azpeiti'ra zetozen bere koronel arroaren atzetik.

Santakrutzenak Zelatu'ko solo-ormentan ostean egozan gorderik, etsaiaren zai. Eta agindu au emon eutsen abadeak bere mutillai:

«Danok ixillik eta gorderik, gero! Eta ez asi, areek ogei metroa alderatu arte».

Ordu osoa iraun eban erasoak. An egoan, bitartean, abadea zutik batera ta bestera, liburu bat eskuan, otoitz eta otoitz. Txamarra baltza ta praka urdiñak eukezan soinean, mantak eta abarkak oiñetan, eta txapel aundia buruan. Gizon asko galdu eben «baltzak», eta euren koronela areen artean. Santakrutzenak, bala gutiak erre, ta alde egin eben azkenik, «Gora Erlijiñoa, Gora Foruak», diadarrez.

## SANTAKRUTZEN BURUA SALGAI

Aibat kalte egiten eutsela, ta salgai jarri eben «baltzak» abadearen burua, eta beste orrenbeste *egin* eben karlostarrak bere. Lizarraga zan onen buru Gipuzokoa'n, Agintari arro ta ustela; berak egin ez, eta besteai egiten itxi nai ezl

Ez eutsen Santakrutzek jaramonik egin ez batari ta ez besteari. Baiña laster etorri yakon Karol errege berberaren agindu zorrotza (au be Lizarraga'k eragiña): andik alde egiteko arin, tiroz garbituko ebala bestela ta...

Eta alde egin eban abadeak. Anaien arteko odolik ixuri nai ez gixajoak!

Bederatzi illabete bakarrak egin ebazan guduan; eta Lizarraga jeneralak iru urtetan baiño kalte geiago egin eutsen etsaiak.

## SANTAKRUTZ, MIXIOLARI

Guda galduta, Londres'en egoan gure abadea, konbentu batean kapellau. Au jakin eta bertora etorri jakon Karol erregea here laguntzailleagaz. Aren Meza entzun, eta auxe esan eutson urtekeran:

—Ba-dakit jarraitzaillerik zintzo ta bizkorrenetarikoa izan zaitudala; eta damu dot lenagorik ez jakitea.

—Ba..., berandu da onezkero-erentzun eutson Santakrutz'ek.

Mixiotara joatekoa zin edo promesa egin eban gure abadeak, guda bitarteko bere egun baltzetan. Eta itza itz, mixiotara joan zan. Jaimaka'ra lenengo, eta andik Colombia'ra gero.

Amabost urte egin ebazan, lenengo lekuan; eta ogeta-malau, bigarrenengoan. Eta 84 urte zitualarik it zan santuki, Colombia'ko Pasto uri ondoan, bere inditar maitez inguraturik.

**URKIOLA'k**

# EUSKERAZALEAK

## GAUR ETA BIAR

**BAI EUSKERARI, txistu, danbolin, abarots eta dirubatzeak amaitu ziran.**

**Onik ezer irabazi ete dogu?**

**Euskerea len aiña motel, Real Academia  
MILOIKA diru.**

\* \* \*

**Al dauanak al dau ta, argitaratuko dira  
milla liburu barri, apaletan ilgo dira geien  
batzuk, zarraren zarrez ori-gorri.**

\* \* \*

**Batzuek, erronkatsu, esango dabena bes-  
teek apalik entzun bearke: zuok lau tantu  
besterik ez, guk «hamar hamarreko».**

\* \* \*

**Batasunaren aldeko giroa izan zala Ber-  
gara'n?**

**Aurkakorik ez da inoz izan Bizkaia'n,  
ez Zuberoan, naizta bi aitzak eortzi gura  
dauskuezan illobi-zuloan.**

**Batua-Batzarrak egiten diranean, jakitun  
diran guztiak zergaitik ez, BOZA ta BOTOA  
(autarkia) galga batean?**

\* \* \*

**Ur zurrunbilloaren norabidea ikusi al  
izateko, Real Euskaltzaindiak epea emon  
edo eskeindu ei eban «hamar» urterako.**

**Eta urak (erriak) egin oi dau bidea Eus-  
kaltzaindiaren boluan (errotan) garia eioteko.**

**Baiña berez egin ete dau bidea, ala ez ete  
da izan gero, aurrez atxurlariak atxurketan  
ibili diralako?**

**LANDAJUELA'tar A.'k**

---

# ZER DA

*Eretia?* Aldi, denpora egokia.

*Kilikagarria?* Pozgarria, atsegintsua.

*Erakartzea?* Tirakadea, dei beroa.

*Kuntzea?* Gizonezko ta andrazkoen izaera berezia,  
seksua.

*Iradua?* Arin egin-bearra, priesea.

*Ezaria?* Astiro, itziez, gauzea galtzea.

*Aolkua?* Ontzat daukagun bidea agertzea eta ja-  
rraitzeko eskatzea.

*Autua?* Alkar-izketea, barriketea.

*Itsatsia?* Lotua, josia, gaiñeratua.

*Asazkaldia?* Atsedean eta nasaitasun-aldia.

*Beratza?* Biguna, barru-miñez betea.

*Unkigarria?* Barruan dar-dar dagiana.

*Suntsitua?* Azpiratua, ezestua.

*Geznari?* Barri-ekarle edo emoilie.

*Kiratsa?* Mingarria, garratz a, mingotsa.


*Ozena?* Gogotsua, zaratatsua.

*Arragoa?* Burdiña urtutzeko sutegia.

*Amultsu?* Maitetsu, biotz-bigun.

# ZAR

Colón de Larretégui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



## 70 urte Bizkaiari laguntzen



**CAJA DE AHORROS**   
**MUNICIPAL DE BILBAO**  
ONDO ERANTZUTEN DAU